

Sam Wooden *For whom Bell Tolls* filmean.

LIMURTZAILEA. Kamera aurrean zein atzean, Cooperrek galai ospea zeukan. Alderdi limurtzaile hura agerian geratu zen bere karreraren zehar egin zituen melodrametan: *Morocco* (1930), *A farewell to arms* (1932) eta *For whom the bell tolls* (1943), adibidez.

*Mr Deeds Goes To Town* Frank Capraren filmean.

APALA. Garaia bezain apala zen Montanako: ia metro bi luze zituen, eta, diotenez, bihotz are zabalagoa. Zuzendari batzuek komedietarako aktore aproposa zela uste zuten, eta hala erakutsi zuen *Mr. Deeds goes to town* (1936), *Ball of fire* (1941), eta *Meet John Doe*-n (1940).

Fred Zinnemannen *High Noon* filmean.

WESTERN-ETAKO IZARRA. Zaldi gainean zuen trebeziak, itxura serioak, eta bere ibilera kulunkariak, *cowboy* perfektua bilakatu zuten. Azken aktore urteetan, *western* film apartak egin zituen: *The westerner* (1940), *High Noon* (1952), *Vera cruz* (1954), eta *The hanging tree* (1959).

Mito bihurtu zen zaldun isila

GARY COOPER JAIO ZELA 100 URTE.

Akademiaren ohorezko Oscarra jaso zuen 1961ean, eta handik hilabetera zendu zen ezkutuan gorde zuen minbiziak jota

Estibalitz Ezkerra | BILBO

Munduko aktorerik onena da. Gainontzeko guztiontzat urtetako ahalegina dena inolako esfortzurik gabe lortzen du: naturala agertzea». John Barrymorek mirestu egiten zuen Gary Cooper, baina ez zen bakarria izan. Altua, isila, eta era-kargarria, Estatu Batuetako zinemaren aktore eredu berri bat sortu zuen. Garaiko zuzendari onenekin lan egin ez ezik, Cooperrek denetariko filmetan parte hartu zuen: *western*-a, komedia, drama, abenturazkoak. Bizirik balego, bihar aktoreak 100 urte beteko litzuke.

Frank James Cooper Montanan jaio zen, 1901eko maiatzaren 7an. Gurasoek, EEBBetan kokaturiko ingelesek, sorterrira itzultzea erabaki zuten. Egonaldi laburra izan zen hura, Lehen Mundu Gerra hastearekin batera Coopertarrak Montanan zuten arrantxora bueltatu baitziren. Handik gutxira, auto istripu batean aldaka larriki zauritu zuen James gazteak. Medikuek hura osatzeko zaldian ibiltzea aholkatu zioten, eta aitak, bide batez, arrantxoan enplegatzeak aprobetxatu zuen. Hala ere, ez zuen gerora hain ospetsu bihurtuko zuen ibilera kulunkaria zuzentzerik lortu. Urte gogorrak izan ziren aktorearentzat, oroitzen lar onik utziko ez ziotenak: «Negu gorrian goizeko bostetan altxatu behar izatea 450 aberei jaten emateko ez du bat ere kutsu erromantikorik». Aita (Auzitegi Goreneko epaile

izatera iritsiko zen) benetako atzerritarra izan zen berarentzat: hotza eta uzkurra. Gerora antzeztuko zituen pertsonaien estiloa harengandik ikasi zuela zioen. Baina Jamesek komikilari jardun nahi zuen. Asmo horrekin artea ikasi zuen, eta Montanako zenbait egunkaritan kolaboratzera iritsi zen. Lanbide hark, ordea, ez zion bizitzeko adina ematen, eta, tartean, Yellowstone parkeko gidari ibili zen.

Montanako larreetatik Hollywoodera

Patuak, baina, sorpresa bat gordeta zion Montanakoari. 1924an Kaliforniara joan eta zinema probetara aurkeztu hasi zen. Bere itxura fisikoari eta zaldun trebea izateari esker, laster lortu zuen *western* batzuetan estratua moduan agertzea. Bi urte geroago, lehen rol garrantzitsua eskuratu zuen *The Winning Barbara Worth*-en. Ordurako, bere ordezkariaren aholkuz, kredituetan Gary izenarekin agertzen zen. Handik aurrera, Cooperren karrerak gora egin zuen: *Morocco*, *City streets*, *Mr. Deeds Goes to Town*, *The Westerner*... Eta horrekin batera, sariak ere iritsiko zitzaizkion. 1941ean *Sergeant York*-ekin, eta 1952an *High Noon*-ekin aktore onenaren Oscarren eskuratu zituen.

Cooperrek gidoiak ikasteko arazoak zituela zioten batzuek. Carole Lombardek behin baino gehiagotan azaldu zuenez, «ahoa irekitzen duenerako, jada egun bat igaro da». Jeffrey Meyersek aktoreari buruz eginiko



EGUNKARIA

Gary Cooper (1901-1961).

biografian, ordea, nahita egiten zuela azaltzen du, gustuko ez zioten esaldiak gidoitik ken zitzaizkion. Emakumezale porrokatua, Cooperren besoetatik, besteak beste, Marlene Dietrich, Lupe Velez, Grace Kelly eta Patricia Neal igaro ziren. Bere sasoiaren aktorerik ordainduena izan arren, ez zuen sekula izar apertarik agertu, eta lankideekin harreman ona izan zuen. «Cooperren antzeko pertsonaia bat asmatuko bazenu, inork ez luke

hura sinesgarritzat joko. Hain ona da, ezen ez baitu gizakia ematen», zioen Ernest Hemingwayk. *A Farewall to Arms* filmean elkar ezagutu zutenetik, lagun min bihurtu ziren aktorea eta idazlea.

McCarthyren sorgin-ehiza puri-purian zegoela, Cooper Jarduera Antiamerikarren Komitearen aurrean deklaratu zuen lehenengoetarikoa izan zen. Ezaguna zen aktorearen izaera errepublikazale eta kon-

FILMOGRAFIA AUKERATUA

- *Morocco* (Joseph von Sternberg)
- *City Streets* (Rouben Mamoulian)
- *A Farewell to Arms* (Frank Borzage)
- *Lives of a Bengal Lancer* (Henry Hathaway)
- *Mr. Deeds Goes to Town* (Frank Capra)
- *Bluebeard's Eighth Wife* (Ernst Lubitsch)
- *Beau Geste* (William W. Wellman)
- *The Westerner* (W. Wyler)
- *North West Mounted Police* (Cecil B. DeMille)
- *Meet John Doe* (F. Capra)
- *Sergeant York* (H. Hawks)
- *Ball of Fire* (H. Hawks)
- *For whom the Bell Tolls* (Sam Wood)
- *High Noon* (Fred Zinnemann)
- *Veracruz* (Robert Aldrich)
- *The Hanging Tree* (Delmer Deves)

IBILBIDE OPAROA

Ehun film baino gehiagotan parte hartu zuen Cooperrek, eta hiru Oscar sari jaso zituen

tserbadorea. Hala ere, ez zuen lankiderik salatu, eta bera izan zen Carl Foremanen alde agertu zen bakarra.

1961ean bere ibilbide oparoa saritu asmoz, Akademiak Ohorezko Oscarra eman zion Cooperri. Bere izenean James Stewartek jaso zuen saria, eta, negar malkotan, aktoreak minbizia zuela aitortu zuen. Hilabete geroago, maiatzaren 13an, bizi bezala hil zen Cooper: isiltasunean.